


DIRU SARRERAK

Diru sarreren segmentuari buruzko hainbat atal ditugu aztergai. Bezeroek gure zerbitzua kontratatzean hainbat tarifa edo aukera dituzte; eta haiek egindako aukeraren arabera izango dira gure diru sarrerak.

Aipatzekoa da zerbitzu berezi eta pertsonalizatua dela eskaintzen duguna, horregatik da prezioa aldakorra. Hala ere, 3 eredu ezberdin eskaintzen ditugu gure web gune eta ofizinetan.

ADNaren analisia da zerbitzu honen adar nagusia; aipatu dugun bezala, aukera dago soilik zerbitzu konkretu hori kontratatzeko. Hasi eta hor bertan bukatzeko aukera, alegia. Hori izango litzateke gure enpresak bezero bakoitzagatik jasoko lukeen diru-sarrerarik urriena. Honen prezioa laborategiaren erabilgarritasunaren arabera izango da; normalean 80-100€ artekoa.

Esan bezala, eskaintzen dugun zerbitzua ez da oso merkea, horregatik, nahiz eta gure prezioengatik jadanik bezeroen segmentua baldintzatuta egon, ahalik eta gutxien baldintzatzea eta ahalik eta bezero gehienek ordaintzeko aukera izatea lortu nahi dugu, helburu horrekin eskeintzen dugun bigarren bidai-eredu edo aukera aurki daiteke bai gure web-gunean baita gure bulegoetan ere. Bigarren aukera hau ADN analisia egin eta analisiaren emaitzen arabera bidaia antolatu eta kontratatzean datza, baina ahalik eta modu merkeenean, hau da, analisian ateratako emaitzetako herrialde bakarra bixitatzeko bidaia antolatuz. Aukera honen prezioa 1000€ ingurukoa izango litzateke.



Bezeroak prezioari dagokionez arazorik ez badu, hau da, gure enpresak eskaintzen duen aukerarik garestiena ordaintzeko prest badago, hirugarren bidai-eredua izango du eskuragarri, non ADN analisia egin ondoren, emaitzetan ateratako arbasoen jaioterritako herrialde guztietara joateko, bertako



kultura ezagutzeko eta hainbat ekintza egiteko bidaia antolatu eta kontratatuko duen. Beraz, gure enpresak bezero bakoitzagatik jaso dezaken diru-sarrera handiena bezeroak aukera hau kontratatuko duen bakoitzekoa izango da. Eredu honen prezioa ere aldakorra da, izan ere, ADN analisiaren emaitzen arabera, herrialde gehiago

edo gutxiago bisitatu beharko ditu bezeroak, beraz, logikoa den bezala, gero eta herrialde gehiago bisitatu behar orduan eta altuagoa izango da ordaindu beharreko

prezioa eta, baita enpresak jasoko duen diru-sarrera ere. Baina estimazio bat egitearren, 5000€ ingurukoa izango litzateke bidai-eredu honen prezioa.

Azaldu berri ditugun hiru aukerez gain, bidaiak bezeroaren gustora moldatzeko aukera ere eskeintzen dugu gure bulegoetan, non bezeroak ezarri zaion laguntzailerekin hitzegin ezker bisitatu nahi dituen herrialde kopurua eta bertan egingo dituen ekintzat aukeratuko dituen bidaia pertsonalizatu bat sortuz.

Beraz, eskaintzen dugun zerbitzuaren prezioa aldatzeko denez, gure diru sarrerak ere halakoak izango dira, baina aldatzeko hori ez du bezeroak aukeratuko duen hiru eredu bat aukeratzeak eragingo, beste hainbat faktorek ere eragiten dute. Eskuragarri dauden ereduak gain, bisitatuko dituzten herrialdeetan hainbat ekintza egiteko aukera izango dute bezeroek, herrialdeko kultura eta ohiturak hobeto ezagutzeko, bisita gidatuak, adibidez. Ekintza gehiago edo gutxiago egin nahi izan horren arabera aldatuko da bidaiaren prezioa eta baita enpresak bezero horri esker izango dituen diru-sarrerak ere.